

ZINESKOLA

Zifrez:

4500 ikasle

100 bat irakasle

64 ikastetxe


40 bat herri

Proiektu eder baten 1. urtea:

- 3 filmen aurre bistaratze
- 2 oreneko 3 formakuntza: ustiapen pedagogikoaren aurkezpena

DIMENSIO PEDAGOGIKOA

- Filma ikusi aintzin: egoerak eta gogoetak
- Filma ikusi eta gero: egoerak eta luzapenak
- Irakasleen oharrak
- Heldu den urteko proposamenak



GRUFALOO

USTIAPEN PEDAGOGIKOA

Kasu! Afixa eta liburuaren azala ez erakutsi filma ikusi aintzin

Dokumentuak beste dokumentu batzuetara bidaltzen du, esteken bidez. Dokumentuak irekitzeko Ikaseko webgunean, zure sesioa irekia izan behar da (kodeak emanaz, parte pribatuan sartzeko).

IKASLEENDAKO HELBURUAK:


- Zineman ikusi eta entzun duten « Grufaloa » filma **ulertu**
- Grufaloaren istorioa lagunei eta gurasoei **kontatu**

ULERTU

- Hiztegia ezagutu eta gogoan atxiki
- Erranaldien egiturak ulertu eta gogoan atxiki
- Gertakarien kronologia ulertu eta gogoan atxiki
- Pertsonaien egoera mentalak ulertu
- Lotura kausalak ulertu eta gogoan atxiki

KONTATU

- Gogoan atxikiak izan diren hitz eta egiturak erabili
- Kontaketa espazioan eta denboran kokatu (koadro; mugimendu; kronologia...)
- Hizkera (discours) zentzuduna ukan
- Pertsonaien arteko harremanak, haien ekintza eta intentzioak adierazi
- Gertakari/pertsonaia batetik bestera diren loturak esplikatu



OINARRIZKOAK:

- **LEXIKOA:**

- Irakasleak hiztegi berezia **helburutzat** eduki
- Ikasleek hitz eta egiturak **landu**

- **KONTAKETA:**

Ikasleak Istorioa kontatzen **trebatu**

USTIAPENAREN TRAMA:

Filma ikusi aintzin:

Proiektuaren azalpena:

*« Laster zinemara joanen gira, **Grufaloa** filma ikustera. Filmaren inguruan ez dizuet deus erranen oraindik, sorpresa izanen da. Aldiz, istorioa ongi ulertzeko, hitz eta erranaldi berri batzuk ezagutuko ditugu aintzinetik. Filma ikusi ondotik, bakoitzak istorio osoa kontatzen ikasiko du aita eta amari kontatzeko gisan. »*

GAITASUN LEXIKALAK LANDU

1. fasea: Hiztegia landu

Hiztegia landu eta filma ulertu saioa 1.saioa

Irakasleak helburutzat eduki duen **hiztegi garrantzitsua** ikasleei:

- **Ezagutarazi:**

Tresna adibideak: istorioan agertzen diren pertsonaia, animale, objektu, leku....en argazki eta irudi-en bitartez (filman eta liburuan agertzen ez direnak) **animaleen irudiak - Lekuen irudiak**

- **ulertarazi :**

Tresna adibideak: mimoa, hatz joko, altxor joko...-en bitartez

- **Gogoan atxikiarazi:**

Tresna adibideak: aktibitate erritualak, entzun xoko, irudi karten kutxaren joko, hatz joko, kantu...-en bitartez

2. Fasea: HITZETIK ERRANALDIRA JO

Hiztegia landu eta filma ulertu saioka 2.saioa

Irakasleak, lehen bi pertsonaia (sagua eta axeria)-ren arteko elkarrizketaren egiturak ikasleei:

- **ezagutarazi:**

Tresna: Filmaren pasartearen transkripzioa: **irakasleak** saga eta axeriaren arteko elkarrizketa kontatzen die. [Transkripzioa](#)

- **Ulertarazi:**

Tresna adibideak: ikasleek: maketa eta 2 pertsonaien eskustatzea, saga eta axeriaren txontxongilo/maskoen erabiltzea, argazki edo irudien erabiltzea, pertsonaien ekintzen mimatzea...

- **Gogoan atxikarazi:**

Tresna adibideak: entzun xokoan irakaslearen transkripzioa entzutea, elkarrizketa txontxongilo edo maskoen bitartez antzeztea..

3. fasea: HAURREN IRUDIKAPENAK BILDU

Irakasleak filma bezperan, ikasleen irudikapenak biltzen ditu:

- « *Zuen ustez, zer edo nor ote da Grufaloo?* » (izenaren inguruan lanketa bat egin daiteke (grizzly eta bufaloaren arteko nahasketa?)
- « *Zerri buruz izanen da filma? Nortzuk izanen dira pertsonaiak?* »

Irakasleak ikasleen proposamenak arbelean edo afixa batean idazten eta atxikitzen ditu.

- « *Grufaloo, pentsatzen duzuen bezala itxuratu ezazue.* »

Irakasleak arte plastikoaren bitartez Grufaloaren potreta bat egitea galdegiten die. (ekoizpenak gelan atxikitzen ditu.)

Azkenik, afixa **erakutsi gabe**, irakasleak filmaren inguruan xehetasunak ematen dizkie.

[Aurkezpena](#)

Filma ikusi eta gero:

4. fasea: HAURREN IRITZIAK BILDU:

- Haurren aintzineko irudikapenak eta filmari buruzko beraien iritziak parekatu (**filmaren Afixa** lagun + proposamenen Afixa)
- Egiazko Grufaloa eta ikasleen itxurapenak parekatu
- Filma eta liburuen arteko loturak egin
- *Grufaloa* liburua, hemendik goiti lan euskarri bezala erabili



5. fasea: PROIETUA BERRIZ ERE OROITARAZI:

« Orain Grufaloa filma ikusi duzuela, ongi ulertu duzuen ikusiko dugu.

Ondotik zuen aitameri istorio osoa kontatzeko, trebatuko gira. »



Praktikan

ULERMEN GAITASUNAK SAKONTZEKO

6. fasea: DESMARTXA BEREZIA (aldatzen ez diren ezaugarriak)

- Ikasleei oroitarazi aintzineko aldian ikasi dutena.
- Ikasle batek kontatzen du, ondotik irudien bitartez egiaztatzen dugu.

ULERMEN GAITASUNAK SAKONTZEKO

- Hiztegi eta egitura berriak ezagutzen eta gogoan atxikitzen dituzte.
- Altxor kutxaren jokoan arituz, hatz jokoetan, entzun xokoa baliatuz...

Hiztegia landu eta filma ulertu saioa 1.saioa





ULERMEN GAITASUNAK SAKONTZEKO

Mimoaren bitartez pertsonaien ekintzak, intentzioak,
sentimenduak landuz... [Hiztegia landu eta filma ulertu saioa 2.saioa](#)



ULERMEN GAITASUNAK SAKONTZEKO

- Irakasleak ipuinaren pasarte bat irakurtzen du.
- Ondotik bere hitzekin kontatzen du.
- Ikasleek entzun dutena haien buruan irudikatzen dute eta hipotesiak egiten dituzte. ?
- Irakasleak liburuko irudiak erakusten ditu eta ikasleen irudikapenekin parekatzen dituzte.



ULERMEN GAITASUNAK SAKONTZEKO

- Ikasleak pertsonaien lekuan ezartzen dira. Zer diote? Zer pentsatzen dute?

Hiztegia landu eta filma ulertu 2.saioa

Zer dio axerik?

Zer pentsatzen du?



KONTAKETA GAITASUNAK LANTZEKO

- Irakasleak ikasleek ulertu eta gogoan atxiki dutena erranarazten die bakarka edo talde txikitan:
 - Irudiak erabiltzen ahal dituzte hitz eta erranaldi etiketekin.
 - Maketaren ezaugarri eta pertsonaiak eskustatzen ahal dituzte istorioa lagunen artean kontatzeko.

Hiztegia landu eta filma ulertu3.Saioa



KONTAKETA GAITASUNAK SAKONTZEKO


Pertsonaien arteko harremanak, loturak lantzeko elkarrizketak antzezten ahal dituzte, txotxongilo edo masken bitartez.

Hiztegia landu eta filma ulertu 2. saioa



KONTAKETA GAITASUNAK SAKONTZEKO

- Ikasle batek Grufaloaren istorio osoa kontatzen du (hasieratik bukaera arte) euskarririk gabe.
- Irakasleak kontaketak grabatzen ahal ditu (haur desberdinen ahozko ekoizpenak aldizkatuz) eta entzun xokoan beste lagunei entzunarazi.
- Haur bakoitzaren grabaketa USB giltza batean ezarri eta gurasoei helarazten ahal zaizkie.



LUZAPENAK

Ulermen eta kontaktan urrunago joateko, gai berdinak aipatzen dituzten beste liburuekin loturak egin:

GRUFALOA ALBUMAREN SEGIDA

Grufaloaren alaba (Julia Donaldson, Axel Scheffler, Bruño, 2017)

Grufaloak alabari esan zion, behin batean, inoiz ere ez sartzeko baso ilun sakonean. Sagu Erraldoi Gaiztoak harrapatuko zuela eta hozkada batean jango zuela bestela. Gau ilunean, elurra ari zuela gogotik, grufaloaren alaba irten zen leize-zulotik. Sagu Erraldoi Gaiztorik ez zen inon existitzen. Berak hori ustez zuen, baina egia ote zen?



MUNSTROAK:

Piztiak bizi diren lekuan (Maurice Sendak, Kalandraka, 2000)

Gure hurbilean daukagu mundu miresgarri bat, eta hartan bizi dira, eguneroko zeregin arruntetatik urrun, piztia xelege batzuk...



Munstroek ere pixa egiten dute ohean (Pello Añorga, Jokin Mitxelena, Pamiela, 2015)

Album honetan, neska bat da protagonista nagusia, eta gustatuko zaio munstroen lurraldera joatea, eta, munstroak lagun, munstrokeriak egitea, helduen mundua trasgrediturik.



BELDURRA:

Otsoaren ipuina (Véronique Caplain, Grégoire Mabire, Ttarttalo, 2015)
Aker aita liburu bat irakurtzen ari zaie bere bi antxumeei. Otso bati buruzko ipuin beldugarri bat da, eta aitak etengabe lasaitu behar ditu : "Gure basoetan ez dago otsorik". Baina... egia ote ?



Munstro bat ohe azpian (Angelika Glitz, Imke Sönnichsen, Ttarttalo, 2005)

Willik badaki ziur bere ohe azpian munstro bat dagoela... Oraindik ez du ikusi, baina badaki han dagoela. Gau batean hots bat entzuten du, eta garrasi egin du zeharo beldurturik: Amaaaaaaaaaaaaaa!



Hartza ehizatza goaz (Michael Rosen, Helen Oxenbury, Pamiela, 2013)

Aita batek eta haren lau seme-alabek abentura zirraragarri bati ekin diote belardi batean zehar, ibai baten bestaldean, baso batean barrena... harik eta leize batera iritsi diren arte; han hartz bat agertu zaie eta izututa etxera bueltatu dira aurretik egindako bidea atzera ibiliz.



Piktogramak



Irakasleak testoa irakurtzen du.



Irakasleak ipuina kontatzen du liburu edo testorik gabe.



« Hitzen memoria » kutxari esker, ikasitako hitzen irudiak atxiki eta berrikusten ahal ditugu.



Ikasleek (haien buruan) testoa erraten duenaren marrazkia irudikatu behar dute.



Ikasleek testoa irudikatu behar dute, istorioaren segida asmatu behar dute.



Ikasle batek, bakarrik, istorioa kontatzen du.



Lagunek, ikaslearen kontaketaosatzen dute.